



**SOZIOLINGUISTIKA
KLUSTERRA**

Euskara biziberritzeko
ikergunea

Soziolinguistika albistaria

44. zenbakia

2018ko urriak 15 – azaroak 8

Soziolinguistika Klusterreko albisteak

[\[KRONIKA\] Euskal Soziolinguistika Jardunaldia 2018](#)

Aurtengo Euskal Soziolinguistika Jardunaldia Bilboko Bizkaia Aretoan egin da eta ingurune digitala izan ditu hizpide, beste gai batzuen artean.

[Izaskun Kuartangok irabazi du 2018ko HAUSNARTU saria](#)

HAUSNARTU Soziolinguistika Sarien XI. edizioa da 2018koa. Urtero bezala hainbat jakintza arlotatik euskal soziolinguistikari ekarpena egiten dioten lanak jaso dira, eta epaimahaiaren erabakiz lehen saria Izaskun Kuartangorentzat izango da, "Bezero misterioitsuaren t..."

[Lankidetza hitzarmena sinatu dute Etxepare Euskal Institutuak eta Soziolinguistika Klusterrak](#)

Etxepare Euskal Institutuak Donostian duen egoitzan egin da sinatze-ekitaldia. Hitzarmenaren helburua bi erakundeek elkarlanean gauzatu ditzaketen proiektuen oinarria ezartzea da, batik bat, euskal soziolinguistika ezagutzaren nazioarteko dibulgazioan eta nazioarteko...

Ikerketak

[Udalerririk euskaldunenetan, osasun zerbitzuetako bost langiletik batek ez du hizkuntza eskakizunik](#)

(UEMA) Udalerrri Euskaldunen Mankomunitateko ordezkariak agerraldia egin dute gaur hedabideen aurrean, Donostian, UEMak bi urtean behin egiten duen behaketaren datuak aurkezteko. UEMako kide diren 86 herrietako osasun zerbitzu publikoak aztertu dituzte, eta lehen aldiz famil...

[Galeseko Estatistika Bulego Nazionalak egindako inkesta batek galesera hiztunen gorakada erakusten du](#)

(AZKUE FUNDAZIOA) Galeseko Estatistika Bulego Nazionalak (ONS) egin duen inkesta baten arabera, 874.700 pertsona daude galeseraz hitz egiteko gai direnak eta 2008an 726.600 ziren. Datu berri horiek gales hiztunen gorakada adierazten dute Galeseko ia lurralde osoan, baina emaitza ofizi...

[Lecturer in Sociolinguistics for Language Education - UCL Institute of Education](#)

(UCL) UCL Centre for Applied Linguistics. Lecturer in Sociolinguistics for Language Education, Ref:1759947. Grade: 8, Full Time. Salary (inclusive of London allowance): £43,884 – £51,769 per annum. Applications are invited for a Lectureship in Sociolinguistics for Lang...

Jardunaldi, hitzaldi eta ikastaroak

[Helduen Euskalduntze Alfabetatzearen erronkak aztertuko dituzte Glotodidaktikako VI. Topaketan](#)

(SUSTATU) "Helduen Euskalduntze Alfabetatzea aurrera begira" Glotodidaktikako VI. Topaketa antolatu du UEUren Glotodidaktika sailak HABErekin elkarlanean eta Euskaltzaindiaren laguntzarekin. Jardunaldi honen helburua euskararen biziberritze prozesuaren egoera aztertzea eta...

[Euskararen komunitatearen etorkizunari buruzko adierazpena onartu da Eusko Ikaskuntzaren XVIII. Kongresuan](#)

(EUSKO IKASKUNTZA) XVIII. Kongresua: Geroa Elkar-Ekin. Euskaraz bizi, garatu eta munduan euskaraz egon nahi duen komunitatearentzako etorkizunerako gutxieneko oinarriak jasotzen ditu adierazpenak. Eusko Ikaskuntzaren XVIII. Kongresuaren bigarren saioa inauguratu dute Arabako Ahaldu Na...

"AHALDUNTZEN: hizkuntza eta generoa" jardunaldia egin du Garabidek Bilbon

(GARABIDE) Aurreko ostiralean Garabidek "AHALDUNTZEN: hizkuntza eta generoa" izenburupean Mondragon Unibertsitateko Bilbao Berrikuntza Faktorian antolatutako lan-saioek (goizez) eta mahai-inguruak (arratsaldez) aurreikuspenak bete dituzte eta dinamika iraunkor baten abiapun...

Language, identity and education in multilingual contexts (2019ko otsaila, York)

(MULTILINGNET) Call for papers: 2018/11/15. After a huge success of the first edition of the INTERNATIONAL CONFERENCE "LANGUAGE, IDENTITY AND EDUCATION IN MULTILINGUAL CONTEXTS" (LIEMC18) held at Marino Institute of Education in Dublin in Februar...

Liburuak eta artikulu zientifikoak

Euskaraldiari buruzko unitate didaktiko bana aurkeztu dute Ikastolek eta AEK-k

(ARGIA) "Hezkuntza talde garen heinean, argi genuen ekarpen berezi bat egin behar geniola Euskaraldiari", adierazi du Ikastolen Elkarteko lehendakari Koldo Tellituk: "Ilusioz eta gogoz beteta gaude". Euskaraldia berez 16 urtetik gorako herritarrei bideratuta dagoen a...

Euskara hutsezko hedabideak aztergai, 'Euskera 2017,2' ikerketa-zenbakian

(EUSKALTZAINDIA) Hamar ikerketa-artikuluk osatzen dute zenbaki berria, eta horietarik bik euskara hutsezko hedabideen garrantzia aztertzen dute: Xabier Landabidea eta Jone Goirigolzarri irakasleek idatzi dute bat eta bestea Libe Mimenzak, Euskal Hedabideen Behatokiko koordinatzaileak...

Jakin 227-228 argitaratu da. Utopien inguruko alea.

(JAKIN) 1960ko hamarkadaren amaieran Euskal Herrian zein mundu osoan aldarrikatutako utopiak egungo aldarri eta gizarte auzi eta eraldaketen begietatik aztertzeke saioa egiten dute Elixabete Garmendia Lasa, Alba Garmendia, Eduardo Apodaka, Uzuri Aboitiz Hidalgo, Iñaki Barce...

Kataluniako gobernuak hezkuntza sistemarako hizkuntza-eredu berria aurkeztu du

(GENCAT) El Govern ha presentat el document que exposa l'actualització del model lingüístic de l'ensenyament a Catalunya i planteja l'aprenentatge i l'ús de les llengües amb un enfocament plurilingüe i intercultural.

Ikusentzunezko komunikazio zerbitzuen zuzentzailearen berrikuspena, aukera bat interneteko hizkuntza politikarentzat – Martí Petit

(LLENGUA I DRET) El 2 d'octubre passat, el Parlament Europeu va aprovar la revisió de la Directiva 2010/13/EU (o Directiva de serveis de comunicació audiovisual, DSCAV). Pendent de la ratificació formal per part del Consell, una vegada s'hagi publicat al Diari Oficial de la Un...

Dokumenturen bat edo informazio bibliografiko gehiago nahi izanez gero, jo zuzenean [HABE Liburutegira \(liburutegi@habe.eus\)](mailto:liburutegi@habe.eus), beraiek arduratuko baitira zure eskaria bideratzen.

Bestelako albisteak

M.J.Azurmendi: "Katedradun izateko babesa izan nuen, baina ez gizonezko gehiengoarena"

(ARGIA) Eusko Ikaskuntzaren Manuel Lekuona saria irabazi du aurten. Linguistika, soziolinguistika eta, are, psikosoziolinguistikatik joko genuelakoan geunden, baina ARGIAtik joanda, Zeruko Argia-ren garaietara joan gara ihesi memoriaren bide asmaezinetan barna, iraganetik or...

Garestik Gasteiza. Klika egingo du 21. Korrikak

(KORRIKA) AEK-k antolatuta, Euskal Herri osoa zeharkatuko du KORRIKAK 2019ko apirilaren 4tik 14ra bitartean. «Klika» da hautatutako leloa: euskararen aldeko hautua egiteko eta euskararen aroarekin bat egiteko deia. Txillardegi omenduko dugu edizio honetan, kulturari, euskalgi...

Euskaltzaindiak jasoko du Gipuzkoako Aldundiaren III. Ondare saria

(GIPUZKOA.EUS) «Euskaltzaindiaren lanari esker, euskara bizirik eta etorkizuna duen hizkuntza bat da», azpimarratu du Denis Itxaso Gipuzkoako Aldundiko Kultura diputatuak aurtengo Ondare saria Andres Urrutiak zuzentzen duen Akademiak jasoko duela iragarri duenean.

Albert Bastardas soziolinguistari omenaldia

(TARRAGONA DIGITAL) El catedràtic de sociolingüística Albert Bastardas i Boada s'ha jubilat com a professor de la Universitat de Barcelona (UB) després de més de 30 anys dedicats a la docència i a la recerca. El passat 17 d'octubre a la tarda, una cinquantena de persones – co...



SOZIOLINGUISTIKA
KLUSTERRA

Euskara biziberritzeko
ikergunea

Babeslea:



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

Bazkide partaidea:

emun^o
EUSKARA ETA BERRIKUNTZA SOZIALA